

## PORT DE LA LUNE

Ur berde ilunak urrun,  
urrun doazenak.  
Eta haizeak daramazkien,  
esklaboaren eresian,  
lur galduetako  
negar ixilak.

**Hilargiaren portua,  
zein den ederra zure izena!**

Heldu zait panpadaka,  
karrasika, aiaika,  
urrungo txalapartak zabaltzen duen  
esklaboaren auhena,  
arimarik etzuenaren  
eresi malenkonikoa...

**Hilargiaren portua,  
amets egiteko izena!**

Leher egiteko bai!  
eta  
sekulorum sekulotan  
madarikatua izateko!  
Arratsalde honetan,  
Garona-ko ertzeetan,  
entzun baita  
esklabo beltzaren eresia,  
egun batez Martinikan,  
bi sosen truke,  
saldu zutenarena.

**Aurelia Arkotxa**

---

(\*Aguas verde oscuras, / que tan lejos van. / Llantos callados, / de tierras perdidas, / que el viento se lleva. / Puerto de la Luna. / Belleza de un nombre! // Se aproxima como un golpe, / como un grito, como un quejío, / el lamento del esclavo / que el tam-tam lejano pregona, / lamento melancólico / de aquél que ni alma tenía // Puerto de la Luna, / nombre para sonar. // Para que nos jodan sí / y / nos maldigan hasta el final de los siglos. / Porque esta tarde, / a orillas del Garona, / se oyó / el lamento del esclavo negro / que un día, / por dos reales, / vendieron en la Martinica.\*)